

KRESALAKO SUKALDEA ERABILTZEKO ARAUAK

Kresalako jantokia eta sukaldea 2000. urtean inauguratu ziren bazkideek ospakizunak egiteko leku bat izan zezaten, bereziki ospakizun gastronomikoak, hala sozialak nola pertsonalak. Bazkide ororen erantzukizuna da instalazioen zaintza eta kontserbazioaz arduratzea, hemen ezarritako arauak errespetatzea, sortutako gastuak ordaintzea eta gainontzeko erabiltzaileekin uneoro harreman egokia izatea.

ERRESERBA BAT EGITEAK ARAUTEGI HONEN ONARPENA, EZAGUTZA ETA ERABILPENA DAKAR BERAREKIN.

ARAUTEGIA EZ BETETZEAREN ARRAZOA EZJAKINTASUNA IZATEAK EZ DU BALIO IZANGO HUTSEGITEAREN ONDORIOAK SAIHESTEKO. SUKALDEKO KOMISIOAK, HUTSEGITE ARINAK ETA LARRIEN ESPEDIENTEA EGIN ETA ZIGORRAK JAR DITZAKE, BAITA ZUZENDARITZAN PROPOSATU ETA ADOSTU HUTSEGITE LARRIEN ZIGORRAK ERE.

ORDUTEGIAK

Ondorengo hauek dira sukaldea erabiltzeko eta jangelako ordutegiak:

- | | |
|--|-------------|
| • Gosaria/hamaiketakoa | 9:30-12:30 |
| • Bazkaria (astelehenetik ostiralera) | 12:30-17:00 |
| • Bazkaria (larunbat, igande eta jaiegunetan) | 12:30-19:30 |
| • Merienda (SOILIK astelehenetik ostiralera LANEGUNETAN) | 17:00-19:30 |
| • Afaria 19:30-itxi arte | |

MERIENDAK LANEGUNETAN EGIN DAITEZKE SOILIK, ASTELEHENETIK OSTIRALERA, hau da, LARUNBAT, IGANDE ETA JAIEGUNAK alde batera utzita.

SARRERAK

INTALAZIOAK ERABILI NAHI DITUZTEN BAZKIDE GUZTIEI GOGORAZTEN DIEGU SARRERA LIBREA DELA TABERNA IREKITA DAGOEN ORDUTEGIAN, BAINA ITXITA DAGOENEAN SARTZEKO TXARTELA BEHARKO DELA (IDAZKARITZAN ESKATZEN DA).

SARTZEKO TXARTELAK ORDUTEGI HONETAN FUNTZIONATZEN DU:

ASTELEHEN, ASTEARTE ETA ASTEAZKENETAN 8:00tatik 23:00etara.

OSTEGUN, OSTIRAL, LARUNATA ETA IGANDEA 8:00tatik hurrengo eguneko 1:00arte.

ORDU HAUETATIK AT SARRERAKO TXARTELAK EZ DU ATERIK IREKITZEN SEGURTASUN NEURRIENGATIK; BERAZ, KONTUAN IZAN KANPOAN SARTU EZINIK EZ GELDITZEKO.

GUNEEN ERABILERA**JANTOKIA- ERRESERBAK**

Elkarteko jantokia bazkideen eta beren lagunen erabilerarako prestatua dago.

Bazkideak (18 urtetik gorakoak, ikus debekuen atala) tokia eskuratu nahi izanez gero, aldez aurretik erreserbatu beharko du instalazioetan ezarrita dagoen kudeaketa-programaren bitartez. Programara Zuzendaritzak edo Sukaldeko Komisioak emandako erabiltzaile eta pasahitzaren bitartez sartzen da.

Erreserbarik egin ezean, ezin da espazioaren erabilera ziurtatu, hortaz, ondoren datorren bazkideak erreserba gauzatu eta bertako zerbitzu guztiak erabili ahal izango ditu.

Erreserbak 30 egun naturaleko aurrerapenarekin egin ahal izango dira.

Egun berezietarako (San Sebastian eguna, Aste Nagusia, estropadak, Santo Tomas edota beste edozein data zeinetan toki eskaera handia aurreikusten den) Komisioak izen-emate zerrenda batzuk jarriko ditu eskuragarri bazkideentzat. Zerrenda horiek geroagoko erreserbak zozketa bidez erabaki edo espazioa antolatzeko baliatuko dira.

Jaunartze-ospakizunetarako eskaerak urtarrilean jasotzen dira eta zehaztutako araudiari jarraiki banatzen dira otsailean.

Araudiaren arabera, bazkide bakoitzak 3 mahai erreserbatu ditzake gehienez ordutegi bakoitzerako. Ospakizun bereziren baterako mahai kopuru handiagoa edo instalazioak beren osotasunean erreserbatzeko beharra duten bazkideek eskaera idatziz helarazi beharko diote komisioari. Komisioa eskaera horiek betetzen ahaleginduko da.

Erreserbatutako espazioa erabiltzeko eragozpenik izanez gero, mahaiak ahalik eta aurrerapen handienarekin ezeztatzea erregutzen da (GUTXIENEZ 24 orduko aldearekin), gainontzeko bazkideentzat eskuragarri egon daitezen. Justifikatu gabeko ezeztapenak errepikatzea falta gisa hartu eta zigortua izan ahalko da.

Desgaitasuna duten pertsonen jantokirainoko sarbidea ahalbidetzen dien plataforma ezartzen ez den bitartean, egoera hori bizi duen bazkideak (langile edo lagun) Sukaldeko Komisioari eskatu ahal izango dio jantokiko ohiko erreserba, Tabernako espazioaren erabilera, idatzi baten bitartez jantokian erabiliko den espazioa, data, otordua, izena, abizenak eta bazkide-zenbakia adieraziz. Sukaldeko Komisioak eskuragarritasunaren berri emango dio bazkideari.

Sukaldeko Komisioak instalazioak erreserbatu ahalko ditu hala behar duten ikastaro, lehiaketa edo ekintza orokorrak gauzatzeko.

Bizilagunen bilerak egiteko jangela erabili nahi duen bazkideak, erreserba, programa informatikoan egin beharko du eta bakarrik astelehen, astearte eta asteazkenetan, jai bezpera eta jai egunetan ezik.

SUKALDEA

Mahaiaren erreserbak sukaldeko tresneriaren erabilera bermatzen du, bazkideen esku behar bezala erabiltzekotan jarria izan dena. Data bereziak direla edukiera handitu behar den kasuetan, Komisioak suak eta labeak zehaztasunez esleitu ahal izango ditu, eskaerak eta bizikidetzak onartu hartuz.

Mahaiaren erreserbak sukaldeko zerbitzuen erabilera eta sukaldearen sarreran dauden osasun zerbitzu orokorrak hartzen ditu bere baitan.

Sukaldearen erabilera bazkideentzat erreserbatuta dago (bakarka edo senitarrean) eta haren erantzukizuna bermatzeko, erabilera ordutegian bertan egon beharko du. Lagunen batek lagundu ahalko du, beti ere espazioaren mugak eta elkarrekin dauden erreserbak kontuan hartuz.

Suen erabilerarako lehentasuna izango du zerbitzua lehenago duenak.

MERIENDAK LANEGUNETAN EGIN DAITEZKE SOILIK, ASTELEHENETIK OSTIRALERA (JAI EGUNAK SALBU) eta egun bakoitzean 2 merienda onartuko dira gehienez. 3. batek meriendarako erreserba egingo balu bertan beheran geldituko da nahiz eta programa informatikoak erreserba baieztatu. Ez da erreklamaziorik onartuko.

FRONTOIA

Mahaiaren erreserbak ez dakar berekin, inolaz ere, frontoiaren edota elkarteko beste espazioen erreserba.

Ekintza zehatzik gauzatzen ari ez bada, jolasteko eremu gisa erabili ahal izango da, kontuan hartuz erreserba egiten duen bazkide heldua frontoian dauden pertsonen (umeak izan edo ez) erantzule dela, baita horiek instalazioei zor dieten errespetuaz (ordena eta garbitasuna) eta oharren inguruan (gimnasia, aldageletara eta gainontzeko geletara sartzeko debekua).

GARBIKETA ETA ZERBITZUAK

Bazkidearentzat eskuragarri dago elkarteak duen jantokiko, sukaldeko eta zerbitzu gehigarrietako material guztia.

Iristean garbiketa faltarik edo araudiaren hausturarik ikusiko balu, idatziz komunikatu beharko dio Komisioari, mezua idazkaritzako postontzian utziz. Komisioak erantzun bat emango dio adierazitako gaiaren inguruan.

Bazkideak materiala eta erreserbatutako espazioa erabili ahal izango ditu, uneoro ordena eta garbitasuna mantenduz, birziklapenean arreta berezia jarriz sukaldean horretarako prestatu diren edukiontziak erabiliz eta beti gainontzeko bazkideen eskubideak beti errespetatuz.

Sukalde barruan, zehaztutako espazioan, eta daukagun espazio murrizta kontuan harturik, bazkidea eta lagun bat baino ezingo dira egon bertan (segun eta zenbat erreserbarekin partekatu behar den espazioa).

Janari izoztuak sukaldean dagoen izozkailuan gorde daitezke denboraldi baterako, bazkideentzako zehaztutako espazioetan. Ez dira izotz makinan gorde behar, ezta hozkailuetan ere.

Hozteko makinak markatu eta bereizita ditu bazkideen eta tabernaren erabilerarako espazioak.

Izozkailuan eta hozkailuan utzitako elikagaiak identifikatuta egon beharko dira, data, eta bazkidearen izena, abizenak eta bazkide zenbakia bertan adieraziz. Handik bi egunera zakarrontzira botako dira.

Janari eta elikagaien hondakinak aprobetxatzeko ontzi batzuk dauzkagu botila txikien eta mahai-zapien gunean. Erabiltzekotan, dagokion likidazioan ordaindu beharko da artikulua.

Bazkideak, erabilera amaitzean, jaso eta garbitu egingo ditu tokia eta erabili dituen mahaia edo mahaiak; erabilitako platerak, mahai-tresnak, katiluak, lapikoak etab. horretarako prestatutako tokian ordenatuko ditu, bertan ezarritako argibide eta seinalizazioei jarraiki. Bide batez, erabilitako espazioaren lurra erraztuko du (jantokia eta frontoia).

Beste bazkide batzuekin topo egin eta hemen azaldutako legedia ezagutza faltagatik betetzen ez dela ikusiko balitz, berau adeitasunez adierazi beharko zaie era egokian jardun ahal izan dezaten. Beren jarrerarekin tematu eta esandakoari kasurik egingo ez baliote, bazkideak ohar pertsonal baten bitartez adierazi beharko du ikusitako gertakaria, egindako ohartarazpena eta erreserbaren lokalizazioa jangelan. Komisioak araudia hautsi duen bazkidea identifikatuko du eta arazoa konpontzen ahaleginduko da haustura hori errepikatzea eta berau bazkari-, merienda- eta afari-erreserba guztiei lotzea ekiditeko.

Gauean, irteten den azken bezeroa tokia behar bezala uzteaz eta, batez ere, ondorengo zehaztasunak deskonektatzeaz arduratuko da:

- Suak, plantxak eta labeak.
- Suen guneko kanpai erauzgailuaren aireztapen sistema (etengailua eta argidun seinalea ezkerreko harraskaren alboan daude (elikagaien garbiketa).
- Kafe-makina.
- Frontoiko argiztapena.
- Aireztapen/erauzketa sistema (etengailu eta argidun seinaleak idazkaritzako atearen alboan).
- Haizagailu zurien sistema (barrikote guneko, idazkaritzako eta sarreraren aldameneko etengailuak).
- Sukalde eta jantokiko argiztapena.
- Eskailerako argiztapena.
- Argi orokorrak itzaliko dirab(etengailu bat dago tabernako solairuan dagoen lehen zutabearen atzean)
- Kaleko atea ongi itxi dela egiaztatuko da, itxiera konprobatuz.

LIKIDAZIOAK**LIKIDAZIORAKO OROKORREAN:**

Erabilitako zerbitzu eta kontsumitutako produktuen likidazio eta kontuak programa informatikoaren bitartez egingo dira soilik. Beronen erabilera ezagutzen ez duen edozein bazkide Sukaldeko Komisioarekin harremanetan jarri beharko da eta adeitasunez erakutsiko zaio nola erabili.

Ordainketa dirutan edo txartel bidez egin ahal izango da. Sukaldeko Komisioak txartel bidezko ordainketa eskertzen du ekintzaren kudeaketa ekonomikoa errazteko.

Likidazioa kontsumitutako unitate eta zerbitzuak adieraziz egingo da (bazkide/ez bazkide oinarrizko zerbitzutik, kontsumitutako guztira).

MERIENDEN LIKIDAZIORAKO (MERIENDAK SOILIK ASTELEHENETIK OSTIRALERA JAIEGUNAK SALBU):

Merienden likidazioetan meriendan parte hartzen duten pertsonak hartzen dira erabiltzailetzat (heldu eta haurrak), ez beren zaintzaileak. Gainera aukera bikoitza dago:

-Aukera bat da likidazio arrunta gauzatzea ontziteria, mahai-zapiak, etab. erabiliz (bazkideen/bazkideak ez direnenez kotizazioa, mahai-zapiak, suak, etab.).

-Beste aukera bat da kanpotik plastikozko material GUZTIA ekartzea, mahai-zapirik eta zerbitzu orokorrik gabe, erabilitako ontziak garbitu behar direlarik. Kasu horretan, meriendetarako prezio berezi bat dago parte-hartzaile bakoitzeko.

EDARIA KANPOTIK EKARTZEA DEBEKATUA DAGO. ARDOA (Kortxoduna), CABA ETA CHAMPAGNAREN KORTXO KENTZEA SOILIK EGONGO DA. FRESKAGARRIAK MERIENDATAN BAKARRIKEKARRI DAITEZKE ETA KASU GUZTIETAN KORTXO KENTZEA ORDAINDU BEHARKO DA

Sukaldeko Komisioak erabilitako produktu eta zerbitzuen eta gauzatutako likidazioaren ordainketa agirian desberdintasunik topatzen badu, bazkidearengana zuzenduko da desberdintasuna adierazi eta likidazio osagarri bat egitea ahalbidetzeko. Likidazioen ez betetze sistematikoak dagozkien isunen prozedurari bide emango die.

PROGRAMA INFORMATIKORIK GABEKO LIKIDAZIOA

Sistema informatikoa blokeatua edo sarbiderik gabe dagoenean, bazkide/ez bazkide kopurua, eta kontsumitutako guztia ohar batean idatzi behar da.

24orduko epean arazoa konponduko da beraz, likidazioa egin ahal izango da. Bazkideak Elkartera joateko arazorik edukiko balu, Kresalako web orriaren bitartez Sukaldeko komisioarekin harremanetan jarri beharko du, duen arazoa adieraziz eta likidazioa egiteko aukera noiz izango duen jakinaraziz.

INFORMAZIO, JAKINARAZPEN ETA OHAR SISTEMA

Komisioak sukaldea erabiltzeko arauak sistema informatikoaren, web orrialdearen edo aproposak iruditzen zaizkion baliabideen bitartez jakinaraztera emango ditu.

Hutsegiteak eta zigorrak modu berean argitaratuko ditu.

Bazkideak Kresalako web orriaren bitartez Komisiorekin harremanetan jarri ahal izango dira edo likidazio eta iradokizun postontziaren bitartez (Idazkaritzaren atean dagoena).

DEBEKUAK, HUTSEGITEAK ETA ZIGORRAK

	DEBEKUA	HUTSEGITE MOTAK	ZIGORRA
1	<p>Sukaldea 18 urtetik beherakoren batek erabiltzen duenean, arduraduna beti zenbaki horren jabea den adin nagusiko bazkidea izango da.</p> <p><u>ADIN TXIKIKOEK EZIN DUTE ALKOHOLIK EDAN</u>, apirilak 7ko 1/2016 legearen arabera. Adin txikikoren batek sukalde zerbitzuak erabili ezker, adin nagusiko bazkideren batek egon behar du uneoro sukalde eta jangelan, adin txikikoei alkoholik edaten ez dutela bermatzeko. Eginez gero, ardura osoa erreserban agertzen diren adin nagusiko bazkideena izango da.</p>	OSO LARRIA	<p>3 ETA 6 HILABETE ARTEAN SUKALDEA ETA JANGELA ERABILTZEKO DEBEKUA (BAZKIDE ZENBAKIAN DAUDEN PERTSONA ORORENTZAT) EZTA GONBIDATU BEZALA ERE.</p> <p>KANPORATZEKO PROPOSAMENA ETA BAZKIDETZA BAJA BANAKAKOA EDO FAMILIARRA</p>
2	<p>Elkarteko zerbitzuak hirugarren bati lagatzea debekatua dago bai eta bazkidea ordezkatzeko ere. Elkartearen erabilpena bazkidearentzat (banakakoa edo familiarra) eta bere gonbidatuentzat da.</p>	OSO LARRIA	<p>KANPORATZEKO PROPOSAMENA ETA BAZKIDETZA BAJA BANAKAKOA EDO FAMILIARRA</p>

3	Elkarteko sukaldeko tresnak, materialak edo dauden ekipo desberdinen ebasketa edo bazkideei egindakoa.	OSO LARRIA	ZIGOR EKONOMIKOA ETA/EDO KANPORATZEKO PROPOSAMENA ETA BAZKIDETZA BAJA BANAKAKOA EDO FAMILIARRA
4	Dirua irabazteko interesa duten pertsonen zerbitzu gastronomikoak (hamaiketakoak, bazkariak, afariak, e.a.) eskaintzeko elkartearen erabilteza debekatuta dago	OSO LARRIA	KANPORATZEKO PROPOSAMENA ETA BAZKIDETZA BAJA BANAKAKOA EDO FAMILIARRA
5	Elkartean erretzea debekatuta dago.	LARRIA	3 ETA 6 HILABETE ARTEAN SUKALDE ETA JANGELA ERABILTZEKO DEBEKUA (BAZKIDE ZENBAKIAN DAUDEN PERTSONA ORORENTZAT) EZTA GONBIDATU BEZALA ERE
6	Elkartearen edozein material, lanabes edo errementeria beste leku batera eramatea debekatuta dago Sukaldeko Komisioak baimena eman ezean	LARRIA	3 ETA 6 HILABETE ARTEAN SUKALDE ETA JANGELA ERABILTZEKO DEBEKUA (BAZKIDE ZENBAKIAN DAUDEN PERTSONA ORORENTZAT) EZTA GONBIDATU BEZALA ERE.
7	Likidazioan ordainketa faltak, kontsumitutako zerbitzu zein gauzen ez idaztea.	LARRIA	-KONTUAREN ERREGULARIZAZIOA.

			3 ETA 6 HILABETE ARTEAN SUKALDE ETA JANGELA ERABILTZEKO DEBEKUA (BAZKIDE ZENBAKIAN DAUDEN PERTSONA ORORENTZAT) EZTA GONBIDATU BEZALA ERE
8	Elkartearen kanpoaldean ozen hitz egitea, abestea eta bizilagunei traba egin diezaiekeen edozein ekintza egitea debekatuta dago 22:00etatik aurrera.	LARRIA	3 ETA 6 HILABETE ARTEAN SUKALDE ETA JANGELA ERABILTZEKO DEBEKUA (BAZKIDE ZENBAKIAN DAUDEN PERTSONA ORORENTZAT) EZTA GONBIDATU BEZALA ERE.
9	Udal araudiak kalean edatea debekatuta dagoela dio.	LARRIA	3 ETA 6 HILABETE ARTEAN SUKALDE ETA JANGELA ERABILTZEKO DEBEKUA (BAZKIDE ZENBAKIAN DAUDEN PERTSONA ORORENTZAT) EZTA GONBIDATU BEZALA ERE.
10	Erabat debekatuta dago elkarte kanpoko edariak ekartzea eta kontsumitzea, salbuetsita egongo dira ospakizun berezietan FRESKAGARRI HANDIAK (MERIENDETAN SOILIK), ARDOA ETA CAVA, BETI ERE DAGOKION “KORTXOA KENTZEA” ORDAINDUZ.	ARINA	ARAUDIA HAUSTEAGATIKO LEHENENGO ABISUA ARAU HAUSTE ARINA IZANGO DA,BAITA BIGARREN ABISUA ERE. HIRUGARREN ABISUA ORDEA, ARAU HAUSTE LARRIA IZANGO DA, 3 ETA 6 HILABETE ARTEAN SUKALDE ETA JANGELA ERABILTZEKO DEBEKUAREKIN (BAZKIDE ZENBAKIAN

			<p>DAUDEN PERTSONA ORORENTZAT) EZTA GONBIDATU BEZALA ERE. LAUGARREN ABISUAK ARAU HAUSTE LARRIAREN TIPIFIKAZIOA IZANGO DU, BOSGARRENA ETA AZKEN ABISUA, ARAU HAUSTE OSO LARRIA IZANGO DA KANPORATZE ETA BAZKIDETZA BAJA BANAKAKOA EDO FAMILIARRA PROPOSATUZ</p>
11	Jarduera partikularretarako erabilera mugatua duten zonaldeetara sarbidea debekatuta dago (gimnasioa, korridoreetako sarbideak, aretoa, taberna (itxita dagoenean)).	ARINA	OHARTARAZPENA
12	Elkartean txakurrak sartzea debekatuta dago (ITSU-TXAKURRAK IZAN EZIK).	ARINA	OHARTARAZPENA
13	Kresalan sukaldatutakoa beste norabait eramatea debekatuta dago. Sukaldeko Komisioak baimena eman ezean.	ARINA	OHARTARAZPENA
14	Sukaldea elikagaiak enbotatzeko erabiltzea debekatuta dago, Sukaldeko Komisioak baimena eman ezean.	ARINA	OHARTARAZPENA
15	13 urtetik beherako haurrak ezin dira sukaldean sartu; ura edo beste edozer gauza beharko balute heldu bat izango da emango diena.(SUKALDEKO KOMISIOKO IKASTARO ETA EKINTZETAN SALBU).	ARINA	OHARTARAZPENA

16	Gizonen komunean hurrei fardela aldatzeko aldatze-mahaia dago eta bai emakumeek bai gizonek erabili dezakete, beraz haurrak bertan aldatu beharko dira eta ez Elkartearen beste edozein lekutan	ARINA	OHARTARAZPENA
17	Egindako erreserban huts egitea eta 24 orduko tartearekin kendu ez izana	ARINA	OHARTARAZPENA ETA ZIGOR EKONOMIKOA
18	Bazide edo gonbidatuen aldetik instalazioen erabilpen desegokia	ARINA	OHARTARAZPENA
19	Hondakinak ez jasotzea, erabilitako guneak ez garbitzea, e.a.	ARINA	OHARTARAZPENA
20	Suak, labea edo plantxa piztuta utzi inolako arduradunik gabe.	ARINA	OHARTARAZPENA
URTE BATEKO EPEAN 3 HUTSEGITE ARIN		HUTSEGITE LARRI BAT	
URTE BATEKO EPEAN 3 HUTSEGITE LARRI		OSO LARRIA	
OSO LARRIA		KANPORATZEKO PROPOSAMENA ETA BAZKIDETZA BAJA BANAKAKOA EDO FAMILIARRA	